

Duela 35.000-7.000 urte Atxurrako inguruneak izandako bilakaera ikertu dute

Atxurra (Berriatua, Bizkaia) eta inguruko aztarnategietako datuetan oinarrituta, duela 35.000 eta 7.000 urteen artean ingurune hartan landa-retzak eta inguruneak izandako aldaketak aztertu ditu ikertzaile-talde batek, Josu Aranbarri Erkiaga EHUko ikertzailearen gidaritzapean. Aranbarri paleolandareztan espezializatuta dago, eta, baieztatu duenez, ikusi dute landare-komunitate oso heterogeneoak agertu zirela denboran zehar, aldaketa klimatikoei eta tokian tokiko litologiari lotuta. Horrekin batera, Gravetiar aldiaren eta Neolitoaren artean inguru hartan egon zen giza okupazioa ere aztertu dute.

Hain zuzen ere, Atxurran dago Lea ibarreko giza okupazio antzinakoena, duela 33.500 urtekoa (Gravetiar aldi zaharra). Ikerketan frogatu dutenez, ingurunean koniferoak ziren nagusi, pinuak eta ipuruak batez ere, eta baso atlantiar mistoaren hedapena mugatua zen. Hortik ondorioztatu dute klima hotza eta lehorra izango zela.

Azken Maximo Glaziarrean, Atxurrako kobazuloa hutsik egon zen, eta inguruko aztarnategietan ere giza arrasto gutxi aurkitu dira, Antoliñako koban salbu.

Geroago, duela 19.400-18.400 urte inguru, pinuak eta ipuruak nagusitu ziren, belar esteparioekin batera, eta ia ez zegoen zuhaitz eta zuhaixka meso-termofilorik. Berriz ere, klima lehorra eta hotza izan zen seinale. Sasoi hartan, Behe Madeleine kultura-ko okupazioak gertatu ziren Atxurran.

Erdi Madeleineko sasoiaren, hutsik geratu zen Atxurra berriro. Aldiz, okupazioak izan ziren Arlanpen, Santimamiñen eta Antoliñako koban.

Pleistozenoaren amaieran, duela 15.000 urte inguru, baso atlantiar mistoa osatzen duten espezieak ugartu ziren. Horrekin batera, Madeleine kulturako



Josu Aranbarri Erkiaga polen-laginak biltzen Atxurran.
ARG.: Josu Aranbarri Erkiaga.

okupazioak zabaldu ziren eskualdean. Arkeologoen ustez, orduan (Goi Madeleine aldian) egin zituzten Atxurra, Lumentxa, Armintxe, Goikolau eta Abittaga kobazuloetako margoetako batzuk.

Horrez gain, ikusi dute garai hartan, lehen aldiz, taldeak antolatu egin zirela Lea ibarrean: kanpaleku nagusiak, ehiza-kanpalekuak, espazio sinbolikoak... Antolamendu horrek bat egiten du baso atlantiar mistoa hedatzearekin eta estepa-itxurako inguruneak desagertzearekin; eta, era berean, baita tenperaturen eta hezetasun-mailaren igoerarekin ere.

Atxurrako azken maila estratigrafikoa duela 7.700-7.000 urte sortu zen, eta baso atlantiar mistoaren eskualdeko hedapena du ezaugarritzat. Arkeologoen ez dute aurkitu Neolitoko giza eraginik paisaia horretan. ●